

Abarak

JON TORNER

Hondarrezko kale a(sa)ldakorrak

*Las calles de arena. Paco Roca.
Delcourt / Astiberri (2009).
102 orrialde, koloretan.*

ZUEI ERE GERTATUKO ZITZAI-
ZUEN. Ustez ezagutzen zenituz-
ten kaleetan bueltaka hasi eta
desio zenuten lekura ezin iristea.
Orientatzeko sena galdu samar
daukazuenok sufrituko zenuten
inoiz sentsazio deseroso hori:
“Jatetxe horrek hemen beharko
luke ba!”.

Paco Roca valentziarrak txiri-
buelta kafkianoa eman dio esperientzia horri.
Komikiko protagonistak ezin du bere hiriko Auzo
Zaharretik atera. Egunak eman ditu han, bide ego-
kia aurkitu ezinean. Egoera berean daude ezagutu-
ko dituen pertsonaia bereziak, hondarrezko kalee-



tan harrapatuta, surrealismoa eta absurdua nahasten
diren istorioetan korapilatuturik.

Komikiak ezinegona sortzen du. Ez soilik narrazioa-
gatik. Eszenatoki, pertsonaia, sentipen bakoitzari kolore-
tonu bat dagokio. Irudi sarri mutuek
gidatzen dute kontakizunaren hotzbe-
roa, bare batzuetan, itogarri besteetan.

Bada, ordea, esperantzarako tarte-
rik, amets batek patua alda baitezake.
Beldurrak beldur, irri egiten dute per-
sonaiek, eta irri irakurleak. Irri mapak
1:1 eskalara egiten dituen gizon argen-
tinarraren azalpenak entzutean. Irri,
ispiluek bere irudia islatzen ez dute-
nez, bizarra mozten duen bakoitzean ebakitxo bat egi-
ten duen kondearen ateraldiekin... Umoreak ezinegona
arintzen laguntzen du, eta azal surrealista daukaten isto-
rio absurduak humanizatu egiten ditu. Azken finean,
edonori gerta dakiokkeen istorioa duzue esku artean.

3.

PUZZIN KAZETAKO GAZTEA

**FREDI PAIA
OIHANA BARTRA
BENAT UGARTETXEA
GORKA OSTOLAZA
XABIER ENBEITA
JOSEBA ARTZA**

Gai-emolea:
ZURIÑE IARRITU

**BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXARPAKETA 2010**

**abenduaren 5ean,
GERNIKAKO
JAI-ALAI PILOTALEKUAN
17:30ean**

LAGUNTZAILEA